

DEIALDI HAU ITXI EGIN DUGU, ESKERRIK ASKO IDEIA ZOROAK BIDALI DIZKIGUZUEN IZAKI ZORAGARRI GUZTIOI

COVID-19 deitu diogun krisialdi sistemikoaren eraginez gutariko asko eta asko etxean itxita gelditu garen honetan Etzi Portu Maritimotik etorkizunaren eta jendartearen alde lerratu nahi dugu.

“Imajinatzen lehenak irabazten du” Franco ‘Bifo’ Berardi

Ez dago etorkizunik, ados, ba orduan asma dezagun bat imagina daitekeenaren markoa apurtuz. Markoa guk jarriko dizuegu lasai, DIN A4 tamainako (210,25 mm x 297,25 mm edo 0,0625 m²ko azaleradun) «orri» bateko proposamenak bidali behar dizkiguzue. [Oteizak paper txuri baten aurrean zuen jarrera](#) zuena egin eta Euskal Herriko lehen **Solarpunka DIN A4an** deialdia zabaldu nahi dugu.

Ideia hauek edozein formatakoak izan daitezke: errelato laburrak (edo luzeak, oso letra tamaina txikia erabiltzea zilegi baita), antzerkirako gidoiak, sukalde errezetak, bosturteko handien planifikazio kolektiboak, AtopiaRPG rol jokorako partida abiapuntuak – edo pertsonaia proposamenak, edo Fakzio berriak, edo Estrabagantzia eta superbote zerrenda eroak, edo...- , bertso paperak, ilustrazioak, proiektu transmedia orijinaletara daramaten QR Kodeak folio osoan inprimatuta, komikiak, entseguak, programazio kodea, banku bat atrakatzeko plan elaboratuak...).

Baldintza bakarra **etorkizun eta itxaropenari buruzko ideiak** lantzea da. Lanek originalak izan behar dute eta jakin denak publikatuko direla hemen gure lizentzia librearekin, ez dizkiogu eta munduari eta historiari opari hauek ukatu nahi. Horretarako helduleku interesgarri bat euskarazko [Solarpunk Manifestua](#) izan daiteke, baina [izan aske](#). Posta elektronikoa eta zure izena eskatuko dizugu formulario baten bidez, baina fitxategian ez jarri izenik edo bidali duen pertsona identifika dezakeen ezer.

Maskaratutako izaki anonimoz osatutako Epaimahai Txit Agurgarri Bezain Misteriotsuak erabakiko du jasotako proposamen artean zeinek diren onenak, eta hiruk saria eramango dute, *Eguzkia*, *Ilargia* eta *Nazioarteko Espazio Estazioa* kategorietan.

Deialdiaren baldintza orokorrak



Gaia: Etorkizuna eta itxaropena

Formatua: DIN A4 (210,25 mm x 297,25 mm). Edozein formato elektronikotan.

Epemuga: Nafarroako Foru Erkidegoan Etxeko Konfinamendua amaitzen den eguna.

Sariak:

- Eguzki saria (LakariKoop-en saskia + AtopiaRPG liburu bat)
- Ilargi Saria (AtopiaRPG liburu bat)
- Nazioarteko Espazio Estazioa Saria (AtopiaRPG liburu bat)

etzi.pm
ETORKIZUNA
IDAZTEN

Irakurgai gehigarriak

- Atopia RPG: <https://atopia.eus/>

- Solarpunk Manifestua: <http://www.re-des.org/solarpunk-manifestu-bat-euskera/>

Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)